



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2013ko uztailaren 11ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **Honako puntuen berri eman da:** 1.1. Eskola Bidea; 1.2. Hondatutako ibaiertzak berreskuratzea; 1.3. Tokiko Agenda 21; 1.4. CIME praktikak; 1.5. Bilerak; 1.6. SMren estatutuak aldatzea; 1.7. BFaren eta Ut21en artean hitzarmena sinatzea, etxeko hondakin txikien frakzioak berriro erabiltzeko prestaketa-zerbitzua emateko; 1.8. EJko Osasun Sailaren laguntzak; 1.9. Etxerre eta Garaiko urmaelak berreskuratzeke plana babestea; 1.10. Lankidetzeta-hitzarmenak; 1.11. Udalerri Txiki eta Ertainen Iraunkortasunerako CONAMA Saria; 1.12. Udaltalde 21ek argitaratutako albistek; 1.13. Mugikortasunaren Europako Astea; 1.14. Bisitak Artiga eta Kooperara.
- **Eskualdeko Ekintza Plana:** Nerbioi-Ibaizabal Eskualdeko Tokiko Agenda 21en Ekintza eta Jarraipen Plana onartu da.
- **TA21en Tokiko Ekintza Plana:** udalerri bakoitzeko Tokiko Ekintza Planak word formatuan eman dira, formatu hori erabilgarriagoa da eta.
- **Erosi eta kontratazeko eskualdeko zerbitzurako pilotajea aukeratzea:** iraunkortasun irizpideak dituen erosketa eta kontrataziorako eskualdeko zerbitzua paper formatuan eta koadernatuta eman da. Oniritzia eman zaie pilotajeari buruzko proposamenei: 1. pilotajea: hornidura elektrikoa; 2. pilotajea: hondakin organikoak batzeko zerbitzua.
- **Isurpen fokuen inbentarioa:** Udazkenean lantaldea sortzea erabaki da.
- **2012ko Memoria:** aurkeztu da.
- **Lehenengo seihilabeteko balantze ekonomikoa eta bigarren seihilabeteko gastuen doikuntza:** 2013ko kudeaketa planaren aurreikuspenekin jarraitzea erabaki da, gastu eta murrizketa gehiago gabe.
- **Abandonatutako animaliak batzeko zerbitzua:** Eskualdeko Bulegotik, zerbitzu honetarako lehiaketa prestatzea erabaki da, iraunkortasun irizpideak dituen erosketa eta kontrataziorako eskualdeko zerbitzuaren barruan.
- **EJren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko laguntzen deialdia:** oniritzia eman zaio Eskolako Agenda 21en laguntza teknikorako eskaerari eta erriberak berreskuratzeke proiektuaren jarraipenari.
- **EEEren laguntzen deialdia:** oniritzia eman zaio Eskola Bidearen laguntza-eskaera aurkezteari eskualdeko beste ikastetxe batzuetan.
- **Ecomov-Steer proiektua:** oniritzia eman zaio proiektuan parte hartzeari.
- **Activate + programa:** oniritzia eman zaio BFAko Ingurumen Sailaren gonbidapena onartzeari.
- **Zerbitzu Ekosistemikoen proiektua:** oniritzia eman zaio proiektu honekin kolaboratzeari.



- **Energiaren kudeaketarako eskaintzak:** eskatzen den dokumentazioa berbidaliko da.
- **Araudi akustikoari buruzko eskaintza:** eskatzen den dokumentazioa berbidaliko da.
- **Eskualdeko Bulegoa udan:** abuztuan hiru astez egongo da itxita.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** urriaren 3an, ostegunean.
- **II. blokea. 10:45 – 11:30. Ikastetxeetako sarreretako Segurtasun Neurriei buruzko ikerketa:** Leber Planificación e Ingeniería, S.A. enpresako teknikariek emaitzak aurkeztu dituzte eta proposamenei buruzko solasaldia egin da.